

EAEko 2025erako aurrekontuen azterketa

Gobernu berria,
aurrekontu politika
berdina

AZTERKETA BULEGOA

2024ko AZAROA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. 2023ko likidazioaren analisia	5
3. 2024ko aurrekontu-politikaren analisia	6
4. 2025eko aurrekontu politikaren balorazioa	7
4.1. Propaganda eta medioen konplizitatea	8
4.2. Zerga-erreforma baztertzeak zorra %50 gehiago jaulkitzea dakar	8
4.3. Aurrekontuaren pisua ekonomian apalagoa	10
4.4. Osasuneko aurrekontua murriztagoa izango da	11
4.5. Hezkuntzarako baliabideak, bere horretan	12
4.6. BPGaren %0,28 baino ez etxebizitzarako	14
4.7. Gizarte-prestazioak izoztuta	14
4.8. Larrialdi klimatikoa	14
4.9. Zorra, gehien hazten den partida	15
4.10. Beste gai batzuk	15
5. Ondorioak	16
6. Proposamenak	18

1. Sarrera

Apirilean EAEko politika instituzionalean aldaketa bat gertatu zen, Urkullu lehendakariaren hirugarren agintaldia bukatu eta Pradalesek aginte-makila hartzean. Hasieratik lehendakari berriak bestelako irudia eman du herritarren aurrean, baita politika egiteko beste molde bat ere. Elkarri-zketarako prestasuna agertu du; horren adierazgarri, ELA sindikatuarekin bilera egiteko prest egotea (aurreko Lehendakariarekin halakorik ez zen izan). Halaber, Gobernu berriak ezberdinen arteko itunak lortzeko asmoan ere ikusi ahal izan da aldaketa, baina esan behar da antzerkia ere izan daitekeela, ez baitu alderdi bakar bat ere behar aurrekontua onartzeko.

Baina diskurtsoa eta moldeak aldatuagatik ere, mamiak berak bere horretan dirau, behintzat gai estrukturaletan. Hau da, ematen den mezua eta irudia ez dator bat gero egiten diren politikekin. Hainbat alorretan egiaztatu dugu hau; zinezko aldaketa izan balitz aurrekontu proiektuan islatuko zen. Haatik, txosten honetan ikusiko dugunez, gobernuaren proiektuak aurreko urteetako ildoari jarraitzen dio.

Aurrekontu proiektu hau egoera konplikatuan dator: ekonomian Europa mailako hazkundera apala da, nazioarteko planoan liskar geopolitikoak puri-purian daude, arau fiskalak aktibatzen ari dira, etab. Egia da EAEko hazkundera beste europar herrialdeetako baino hobe dela: datorren urterako %2,1ekoa izatea espero da, hots, inguruko estatuetakoa baino handiagoa, baina Estatukoa baino txikiagoa. Hala ere, kezkatzeko arrazoiak daude. Gobernuak bere txostenean aipatu du, eta Pradales lehendakariak esan du, Europak lehia industrialean atzeratuta geratzeko arriskua duela, eta gogoratu dezagun industriak pisu handia duela EAEko ekonomian. Gainera, Trumpen garaipena beste oztopo bat izan liteke euskal industriarentzat. Bestalde, Txina gero eta automobil gehiago esportatzen ari da, eta horrek gurean ere eragina izan dezake. Horri erantsi behar zaio arau fiskalen ezarpena eta defentsarako aurrekontua handitzea; horrek datozen aurrekontuetan gizarte-gastua gehitzeko aukera handirik ez izatea ekarri dezake.

EAEko egoerari dagokionez, osasungintza da erakundeek zaindu beharreko gai nagusietako bat. Pandemiak agerian utzi zuen Osakidetzak okerrera egin zuela; urteak joan direlarik, arazo hau ez da bideratu, eta badirudi Osasunaren Itun berriak ere ez duela zuzenduko, aurrekontu politikak alde batera uzten du modu onartezinean. Etxebizitza da herritar askoren arazo handietako bat; aurrekontuak horri heldu beharko lioke. Bestalde, ezin ahaztu azken urteetako inflazio-prozesuak langilearia pobretzea eragin duela.

Txosten honetan aurrekontu-politiken analisia egingo dugu. 2023 urtea aztertzeko aurrekontuaren likidazioa daukagu, hau da, iazko gastu eta sarrera errealean datu zehatza dugu. Aurtengo ekitaldirako, berriz, itxiera aurreikuspena ezagutu dugu eta 2025erako Ogasun eta Finantzetako departamentuak plazaratu duen proiektua analizatuko dugu.

2. 2023ko likidazioaren analisia

Datorren urteko aurrekontu proiektuari heldu baino lehenago, aurreko txostenetan bezala, atal honetan iazko aurrekontu politikaren analisia egingo dugu. Horretarako Eusko Jaurlaritzak urtero argitaratzen duen itxiera aurreikuspenaz baliatuko gara. Aurreikuspena, beti bezala, interesatua da eta ez dator beti errealitatearekin bat. Alabaina, orain 2023ko aurrekontuaren behin betiko likidazioa daukagu; beraz, ezagutu daiteke administrazio orokorraren gastu eta sarrera errealak zeintzuk izan ziren.

- **Sarrera aurrekontuaren likidazioa**

2023ko ekitaldia ixtean sarrerak 14.016 milioi eurokoak izan ziren, aurreikusitakoa baino %1,6 gutxiago. Foru Aldundien ekarpenak, aurrekontuaren sarrera nagusia, itundutako zergak biltzen baitituzte, guztira 12.076 milioi eurokoak izan ziren, hau da, %1,5eko igoera (175 milioi euro) hasierako aurrekontu proiektuaren aldean. Espainiako sektore publikoak egindako transferentziak ere aurreikusitakoa baino askoz handiagoak izan ziren; zehazki, 453 milioi euro (137 milioi gehiago). Bestalde, EBrekiko finantza-harremanek 70 milioi gehiago eman zuten, 163 milioi izateraino. Gainera, MRR funtsetako 290 milioi euro txertatu ziren (aurrekontuan 104 milioi espero ziren).

Aurreko urteetan egin ohi zuen bezala, Eusko Jaurlaritzak 2023an zorraren jaulkipena murriztea erabaki zuen. Aurrekontuen likidazioaren arabera guztira 694 milioi euro jaulki ziren, eta ez aurrekontuan jasotako 1.197 milioiak, hau da, espero zen kopuruaren ia erdia.

- **Gastu-aurrekontuaren likidazioa**

2023ko aurrekontu proiektuko gastua guztira 14.251 milioi euro izan behar zen. Bada, azkenean 14.408 milioi gastatu ziren, hots, aurreikusitakoa baino %1,1 gehiago. Gehien hazi ziren sailak hezkuntza (%3,8 gehiago) eta osasuna (% 2,9 aurreikusitakoaren gainetik) izan ziren.

2022ko likidazioarekin konparaketa adierazten du aurrekontua %4,9 handitu zela.


- **Ekitaldiko aurrekontu-emitza**

Beraz, ohiko aurrekontuaren emitza 392 milioi euroko saldo negatiboa izan zen, BPGarekiko %0,42ko defizita.¹

$$14.016 - 14.408 = -392$$

Aurreko ekitaldietako emaitzak murrizten badira (-7 milioi), 2023an 399 milioiko aurrekontu-defizita izan zen. Aurreko urteetako superabitari esker 2022/12/31an diruzaintza soberakina 1.961 milioi eurokoa zen. Aurrekontuaren emitza kenduta (-399 milioi) eta 494 milioiko loturik dagoen gerakina eta kobratzeko zalantzaak diren eskubideak zenbatuta, 2023/12/31ko diruzaintzako gerakin erabilgarria 1.068 milioi eurokoa zen.

2023ko emaitza eta soberakin kontua (milioi eurotan)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, EAEko Ekonomia eta Ogasun sailaren datuekin

3. 2024ko aurrekontu-politikaren analisisa

Aurtengo aurrekontu-politikaren balorazioa egiteko Ogasun eta Finantza departamentuaren itxiera aurreikuspena daukagu. Lehenago esan dugun moduan, kopuruak behin behinekoak dira eta behin betiko likidazioa ezberdina izaten da.

- Diru-sarreraren aurreikuspen itxiera**

Itxiera aurreikuspenaren arabera aurtan 14.018,4 milioi euroko sarrerak izango dira. Gogoratu beharra dago hasierako aurrekontua 15.025 milioikoa zela. Ondorioz, esan dezakegu sarreraren inguruko aurreikuspenak okerrak zirela. Hau gertatu da, batez ere, 800 milioi itzuli zizkietelako mutualistei, iraganean ezarri behar ez zitzaizkien atxikipenen ondorioz; horregatik Diputazioek emandako diru kopurua txikiagoa izan da, 12.686,7 milioi izatetik 12.273,5 milioitaraino jaitsi baita.

Espainiako sektore publikoarekiko finantza-harremanak 545 milioitik 358 miliora igaroko dira. Europar Batasunarekiko finantz-harremanak, aldiz, handitu egingo dira, 123tik 191 milioiraino.

Aurrekontu-politikei ekiteko gerakinaren 597 milioi euroko aurrekontua egin den arren. Badirudi Eusko Jaurlaritzak ez duela soberakinaren euro bakar bat ere erabiliko. Zorraren jaulkipenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, aurreko urteetan ez bezala, aurrekontuan zegoen zor guztia jaulki behar izan du. Zorra 2024an jaulkitzeko aurreikuspena 837 milioikoa da.

- **Gastuen aurreikuspen itxiera**

2024rako aurreikusitako gastua hasierako aurrekontua baino txikiagoa izango da. Proiektuak 15.025 milioi euroko guztizko gastua jasotzen zuen, eta aurreikusitako itxiera-zifra 14.959 milioikoa da, hau da, aurrekontuan aurreikusitakoa baino 66 milioi gutxiago gastatuko dira (-%0,4). AHTra, zorrera eta MRRra bideratutako partidak kentzen baditugu, hazkundera %0,2koa izango litzateke.

Gehien hazi diren partidak osasuna (%6,3) eta hezkuntza (aurrekontuan jasotakoa baino %3,2 gehiago) izan dira.

- **Ekitaldiko aurrekontu-emaitzaren aurreikuspena**

Itxiera aurreikuspenaren arabera, zorra jaulki gabe Eusko Jaurlaritzak 1.778 milioiko defizita izango luke urtea ixtean. Zorra jaulkita urtea %5,23ko defizitarekin itxiko du (940,6 milioi). Hau ez litzateke gertatuko sarrerak era justuagoan handitzeko zerga-erreforma bat egingo balitz; hau aurrerago aipatuko dugu.

4. 2025eko aurrekontu politikaren balorazioa

Pradales Lehendakariak eta d'Anjou Ogasun eta Finantza sailburuak urriaren amaieran lehen legizaldiko aurrekontu proiektua eman zuten ezagutzera. Gobernu berriak 2025eko aurrekontuari "Euskadi berria. Creciendo en bienestar" goiburua ezarri dio. Antza nolabait aldendu nahi dute Urkulluren ildotik.

Jaurlaritzaren proiektuak hiru zutabe ditu: zerbitzu publikoak indartu, etorkizuna prestatzeko eraldaketetan inbertitu eta komunitate sentipena areagotu. Horretarako aurrekontua guztira 15.728 milioi eurokoa izango da, aurtengoa baino %4,7 handiagoa¹. Aurrekontuaren %76,6 gizarte-gastura bideratuko da, ia aurreko urteko portzentaje berbera. Haatik, argitu beharra dago Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza gehienak hain zuzen gizarte-gastuari lotuak direla. Beraz, ez da harritzekoa aurrekontuaren zatirik handiena osasunera, hezkuntzara, gizarte-prestazioetara eta halakoetara joatea.

Ohar garrantzitsu bat egin behar da: Europako arau fiskalek eragin dezakete Jaurlaritzaren aurrekontua mugatzea. Oraingoz ez da gauzatu euskal erakundeen defizit eta zorpetze helburuak definitzeko prozedura. Helburuok Madrilen menpe daude, izan ere, Espainiako gobernuak erabakitzen baititu Autonomia Erkidegoek eta udalek bete beharreko helburuak. Kongresuan birritan kale egin du (bi aldietan ere autonomiei %0,1eko defizita baimentzen zitzaien), eta ildo hori aurrera ateratzeko egoera konplikatu da. Aurrekontuan 2024ko helburuak jaso dira, eta hauek BPGaren %0,3ko defizita ezarri zuten, 200-300 milioi euro inguru.

4.1. Propaganda mediatikoa

Demokrazia taxuzkoa denean gardentasunak eta informazioa eskura izateak bermatzen dute herritarrek gauza publikoan parte hartzeko aukera. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu-proiektuaren informazio partziala eman du, bere intereseko datuak eskainiz eta herritarren esku informazio osoa jarri gabe. Gainera, hedabide hegemonikoek, diskurtso ofizial horren azalpen akritikoa egin dute, ezin egin izanez bertsio ofizialari kritika, oraindik ez zutelako proiektua bera osorik ezagutzen.

Hau zein larria den ulertzeko gogoratu beharra dago aurrekontuen onarpena dela urteko legegintza ekintzarik garrantzitsuenetakoa, oinarrizko sektoreei eragiten baitie (hezkuntza, osasuna eta ongizatea). Aurrekontuan dirua zertarako jartzen den guztion bizimoduan eragina du; horregatik prozesuak gardentasuna eta eztabaida eskatzen du. Balorazio ofizial bat plazaratzea, dokumentua osorik ezagutzeko aukerarik eman gabe, oinarrizko printzipio horiek urratzen ditu eta Legebiltzarra zein herritarrak oso mugatuta uzten ditu, gobernuaren politika aztertu eta fiskalizatzeko informazio orik gabe geratzen baitira.

Gainera, komunikabideek soilik gobernuak emandako informazio partziala jaso izanak prozesua areago kaltetzen du, kontakizun bakarra inposatuz. Haatik, demokrazia ez da tarteka botoa emate hutsa; auzi publikoetan parte hartzeko beta ere izan behar da, gobernuaren erabaki eta proposamenak behar bezala ezagutzeko aukera emanez.

Honi gehitu behar zaio hedabide hegemonikoen jarrera kezagarria, gobernuaren mezu ofiziala auzitan jarri gabe hedatu baitute. Dagokien kontrol papera bete ordez gobernuaren bozgorailu huts bilakatu dira. Demokrazian haien ardura izan beharko litzateke dokumentua osorik ezagutu, zalantzan jarri eta ikertzea; ez lirateke mugatu beharko Lehendakariaren iritzia errepikatzen.

Hain zuzen pasa den abuztuan Pradales Lehendakariak "Itun Etikoa" bultzatu zuen, Euskadin jarduera politikoa eredugarria izan dadin; dekalogo honek nabarmentzen du elkarleen autonomia aintzat hartu beharra, hedabideen inpartzialtasuna eta informazio publikoa eskura izateko aukera; datuen erabilpen okerra arbuiatzen da. Haatik, bere lehenengo aurrekontu-proiektua kudeatzeko moduak ez dauka zerikusirik printzipio horiekin.

4.2. Zerga-erreforma baztertzeak zorra %50 gehiago jaulkitzea dakar


Eusko Jaurlaritzaren 2025erako sarrera aurrekontua 15.728 milioi eurokoa da, 2024ko itxiera aurreikuspenekoa baino 1.709 milioi handiagoa (%12,2 gehiago). Zenbateko horretatik %83,9 Foru Aldundien ekarpenek osatzen dute, guztira 13.200 milioi euro, hots, itxiera aurreikuspeneko zenbatekoa baino %7,5 handiagoa (926 milioi gehiago)³. Ekarpina batik bat BEZ eta PFEZetik dator, gehienbat soldatapekoek ordaintzen dituzten lan-atxikipenetatik. Hau da, langileriak sostengatzen du aurrekontu hau.

Beste baliabide instituzionalen sailak guztira 639 milioi euro ditu; hauetatik Europako kohesio-funtsei 143,9 milioi (FSE, FEDER, FEAGA, FEADER eta FEMP) eta Estatuko transferentziei, 494 milioi (BDGStik 229, AHTagatik 85, energia-zergengatik 67 eta kreditu-erakundeetako 52, besteak beste). MRRari dagokionez, aurreko urteetan ez bezala, 2025ean ez da sarrerarik aurreikusi². Eusko Jaur-laritzak beste baliabide batzuk ere izango ditu (prezio publikoak, kredituak, etab.), 250 milioi euro.

Zerga bilketa, aipatutako transferentziak eta baliabide propioak ez dira aski gastua osatzeko; ondorioz, batetik soberakina erabili behar da (366 milioi euro) eta bestetik zorra jaulki, kontuak koadratu ahal izateko. Pradalesen gobernuak zorpetze-aurrekontua 1.285 milioi euroraino handitu du, hots, aurtan baino %53 gehiago. Esan dezagun berez zorpetzea ez dela kaltegarria. Hala ere, egia da zorpetzeak kutxa publikoei ahalegin handiagoa eskatzen diola, zorrak sortzen dituen interesak ordaindu behar baitira. Gainera, euriborra beheranzko joeran izanagatik ere 2022 aurreko mailaren oso gainetik dago oraindik, interes tasak %2,5ean baitaude.

Arazo hau zerga-erreforma batekin konpondu liteke, enpresek eta errenta altuek ordaintzen dituzten zergak asko handituz. Alabaina, Eusko Jaur-laritzak argi utzi du honekiko bere jarrera. Era horretako erreforma bat egitea baztertu duela "erreforma" berri honekin ikusi da; baita energia enpresen gaineko zergaren kontrako jarrerarekin ere; hau Espainiako Gobernuak ezarri zuen, baina EAJ eta Juntsi esker bertan behera geratuko da.

Eusko Jaur-laritzaren 2025eko Sarrera-Aurrekontua (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, EAEko Ekonomia eta Ogasun sailaren datuekin

4.3. Aurrekontuaren pisua ekonomian apalagoa

Ohi duenez, Eusko Jaurlaritzak nabarmendu du historiako aurrekonturik handiena landu duela. Logikoa da kontutan izanik BPGa hazi ahala (baita, azken urteetan, inflazioa ere) aurrekontu-gastua ere handitzen dela.

Aurrekontuan guztira 15.728 milioi euro jarriko dira, hau da, % 4,7ko igoera aurreko urteko aurrekontuaren aldean. Haatik, azterketa egokiagoa egiteko itxiera aurreikuspenarekin konparatu behar ko litzateke, hau errealagoa baita, urteko itxiera zenbatetsia ezagutzen baita. Konparaketa horrela eginez gero igoera % 5,1ekoa izango da (ia 770 milioi).

Alabaina, zenbateko osotik hainbat sail kendu behar da, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu operatiboa zein izango den ezagutzeko, hau da, ahalmen ekonomiko erreala. Hauek dira kendu beharreko kontzeptuak:

- Zorra ordaintzeko saila (1.025 milioi euro).
- Lanak aurreratzeari dagozkion zenbatekoak, aurrerago Espainiako gobernuak itzuliko dituenak (85 milioi AHTrako eta Hegoaldeko Burdinbide-Saihesbiderako).

Sail horiek kenduta Jaurlaritzak 14.618 milioi euroko aurrekontu operatiboa izango du bere sailentzat, 2024ko itxiera-aurrekontua baino X milioi gehiago, hots, % Xko igoera. Kopuru hauek ezagutu beharrekoak dira, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua esaten denea baino askoz ere gutxiago handitu baita.


- Gainera, aurrekontutik kendu beharko lirateke ere MRR funtsak (271 milioi euro). Exekutatu gabeko aurreko urteetako funtsekin osatuko da gastu hau.

Horrenbestez, aipatutako kenketak eginez gero aurrekontu operatiboa 14.347 milioi eurokoa litzateke, 2024ko itxiera aurreikuspena baino % 3,1 handiagoa soilik, eta ez Jaurlaritzak saldu duen % 4,7.

Aurrekontu publikoak ekonomian duen pisua, BPGarekiko guztizko gastu moduan neurtua, adierazle ona da erabakitzeko aurrekontua benetan handitu ote den. Hau da, aurrekontu bat benetan hedakorra izan dadin gastu publikoaren eta BPGaren arteko proportzioa handiagoa izan beharko litzateke.

2025ko guztizko gastua % 15,5ekoa da. Baina aipatutako kontzeptuak kenduz gero (AHT, zorra eta MRR) portzentajea % 14,1eraino jaisten da. Datu hau 2024ko itxiera aurreikuspena baino apalagoa da (% 14,3), 2023koaren parekoa (% 14,1), eta 2022koa baino txikiagoa (% 14,4). Kontutan izan behar da ratio hau 2020an handitu zela batez ere BPGa murriztu zelako, izan ere, aurrekontua uzkuritu egin baitzen. Atzera begiratuz gero, Eusko Jaurlaritzaren ahalegina 2009ko mailaren azpitik dagoela egiaztatuko dugu: urte hartan BPGaren % 15,6koa izan zen.

Aurrekontuak BPGan duen pisuaren bilakaera (%)




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, EAEko Ekonomia eta Ogasun sailaren datuekin

4.4. Osasuneko aurrekontua murriztagoa izango da

Aurrekontuan pisurik handiena Osasun sailak du. 2025erako aurreikusi da 5.115,9 milioi euro bideratuko direla, hots, 2024ko itxiera aurreikuspena baino 91 milioi euro gutxiago. Nahiz eta propagandak eta Jaurilaritzaren memoriek hazkundea saldu nahi duten, benetan osasunerako jartzen den zenbatekoa txikiagoa da.

Gainera, ekonomiaren osotasunean gero eta zati eskasagoa hartzen du. Osasunera bideratutako saila BPGarekiko 2025ean %5,05ekoa izango da. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, azken sei urteetako baliorik apalena da.

Osasun Sailaren BPGren gaineko pisuaren bilakaera (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, EAEko aurrekontu proiektua eta Eustaten datuak baliatuta


Departamentuko aurrekontu horretatik Osakidetza %80 jasotzen du, guztira 4.106 milioi euro. Ozen asko esaten den arren Osakidetza arazo estrukturaleri aurre egiteko aurrekontua handituko dela, zenbateko hau 2024ko itxiera aurreikuspena baino 7 milioi handiagoa besterik ez da, %0,1 handiagoa. Beste sail batzuek, esaterako farmaziako gastuak, zeinak osasun sailaren aurrekontuan pisu handia du (%12), guztira 602 milioi euro izango ditu.

Osakidetza langileen gastua, berriz, soilik 24 milioi euro handituko da, %0,9 ko igoera. Osakidetza prekaritatearen adierazgarri da 2025eko langile gastuaren aurrekontua: behin-behineko beharginak %46 dira eta %43 langile laboralak.

Osasuneko gastua zenbatekoa den neurtzeko herrialde europarrekiko konparaketa egin behar da. Eurostaten azken datuekin alderatuz gero (2022koak dira), EAEko osasuneko gastua azken postuetan legoke; hala ikus daiteke ondorengo grafikoan. Aipatu denez, 2022an BPGaren %5,52 bideratu zen atal honetara, baina Europako batez besteko maila %7,6koa zen; finantziario defizita %2,08koa da, beraz. Bi puntutik gorako alde hori gainditzeko aurrekontua %37 handi beharko litzateke; horrela 2025eko osasun sailaren aurrekontua 1.893 milioi handiagoa litzateke. Portzentaje hori Europako beste estatu batzuekin konparatuz gero, aldea askoz ere handiagoa litzateke: Frantzia %9,1koa da gastua, eta Alemanian %8,5koa.

Europako eta EAEko batz besteko osasuneko gastua BPGarekiko (2022)

Europar Batasuna



EAE




**1.893 milioi € gehiago
gastatu beharko lirateke**
EBko batz besteko
gastua berdintzeko

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eurostaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin

4.5. Hezkuntzarako baliabideak, bere horretan

Begoña Pedrosa sailburuak zuzendutako sailak 3.247 milioi euro izango ditu, aurtengo itxiera aurreikuspena baino %8,7 gutxiago. Zenbateko hori 2024. urteko Hezkuntza Saila baino askoz txikiagoa da. Hau gertatzen da Urkulluren Gobernuak bere gain zituelako unibertsitate-politikak eta lotutako ikerketa-politikak. Gobernu berriarekin, arlo horiek kudeatuko dituen sail berri bat sortu da: Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila. Sail berri honek 612,7 milioi euro izango ditu. Beraz, konparazio baliokide bat egiteko, gobernu berriko kabineteko bi sailak batu beharko lirateke. Bi sail horiek 3.860 milioi euro biltzen dituzte, aurtengo itxiera-aurreikuspenari dagokion zifra.

Osasun Sailaren BPGren gaineko pisuaren bilakaera (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, EAEko aurrekontu proiektua eta Eustaten datuak baliatuta

Azken batean, hezkuntzara bideratutako zenbatekoa ez da murrizten, baina ekonomian garrantzia galtzen du. 2024an BPGren %3,97 bideratuko dela aurreikusten da, eta 2025erako, berriz, %3,81. 2022an, hezkuntzak EAEn BPGrekiko zuen pisua %3,89koa izan zen, eta Europako batez bestekoa, berriz, %4,7koa. Soilik Grezia, Errumania eta Irlanda egon ziren EAEren azpitik. Europako batez bestekoarekin alderatuta, 900 euro inguru gehiago bideratuko lirateke Hezkuntzara, 2025erako aurreikusitakoa baino %21 gehiago.

Europako herrialdeetako hezkuntzako gastua BPGarekiko (2022)

Europar Batasuna



EAE



**800 milioi € gehiago
gastatu beharko lirateke**
EBko bataz besteko
gastua berdintzeko

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eurostaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin

4.6. BPGaren %0,28 baino ez etxebizitzarako

Etxebizitza da euskal herritarrentzako beste arazo larrietako bat, batik bat gazteentzat, migra-tuentzat eta errenta apalak dituzten biztanleentzat. ELAk aspaldidanik salatu izan du bizileku duina izateko gero eta jende gehiagok dituela zailtasunak. Egin diren politikak, etxebizitza merka-tuaren menpe jarri dute. Gainera, erakundeek ez dute benetan aitortu etxebizitza izateko eskubide subjektiboa. Programa eta laguntzek ez diote konponbiderik eman arazo honi.

Etxebizitza eta Hiri Agenda sailaren eskura 446 milioi euro jarriko dira; hauetatik 317 funts propioak dira eta 129 milioi europar funtsetatik etorriko dira. Etxebizitzara 286,4 milioi euro bideratuko dire-la aurreikusi da. Aurrekontua urriegia da etxebizitza izateko eskubide subjektiboa bermatzeko, hau da, EAEko etxebizitza legeak dioena betetzeko. Etxebizitzarako gastuak BPGarekiko duen pisua %0,28koa da. Hau europar batez besteko mailara (%0,6) eramango balitz aurrekontua 608 milioi eurokoa izan beharko litzateke.

Etxebizitzaren arazoa benetan garrantzitsua da ELArentzat; horregatik, etxebizitza politikarako jartzen diren baliabideak progresiboki gehitzeko aldarrikatu izan dugu, BPGaren %2 iritsi arte; horrela 2.000 milioi euro inguru izango lirateke etxebizitzaren eskubide subjektiboa bermatzeko.

4.7. Gizarte-prestazioak izoztuta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DSBE), baliabiderik ez duten pertsonen laguntzeko prestazio nagusiak, 399 milioi euroko zuzkidura izango du 2025ean, eta 382 milioi eurokoa aurreko urteko proiektuan (ez dago itxiera-aurreikuspenaren daturik). Horri gehitu behar zaio, adierazi dugun bezala, Espainiako Gobernuak transferitu duena: 200 milioi euro Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (IMV, gazteleraz) partidaren truke. Hala ere, ez da oso garrantzitsua zuzkidura, eskubide bat diren prestazioez ari baikara, eta bermatu egin beharko lirateke, aurrekontua amaituko balitz ere.

DSBEaren zenbatekoak %1,5 handituko dira, iraileko KPlaren arabera. Zortzi euro dira hilean oinarizko zenbatekoan, 560 eurotik 568 eurora.

Alokairuko etxebizitzarekin lotutako prestazioak 300 eurotan izoztu dira, bideratutako partidak hazi diren arren. Alokairuen prezioak oso altuak dira, baina bai Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO, DSBE jasotzen duten pertsonen eskubidea dutena), bai Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa eta Gaztelagun eta Emantzipa gazteen emantzipaziorako laguntzak 300 eurotan mantentzen dira. Gogoratu behar da EPO 2008an sortu zela eta orduan 320 euroko gehieneko zenbatekoa zuela, baina kopuru hori ez da 18 urte hauetan berriro lortu.

Gizarte-Larrialdietarako Laguntzei (GLL) dagokienez, osterera ere 41,5 milioi euro aurreikusi dira, azken urteetako kopuru berbera. Laguntza honi dagokionez gogoratu beharra dago ez dela eskubi-de gisa aitortzen eta aurrekontua agortzen denean prestazioa ez dela gehiago ordaintzen.

4.8. Larrialdi klimatikoa

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuek ez dute larrialdi klimatikoak eta trantsizio ekosozialak eskatzen duten norabide aldaketarik egiten. Gauza jakina da klima aldaketari aurre egin eta trantsizio ekosozial justu bat izateko energia kontsumoa gutxitu eta energia berriztagarriak bultzatu behar direla. Helburu hau lortzeko mugikortasuna gutxitzea ezinbestekoa da, batez ere garraio pribatua eta energia fosila erabiltzen duena.

Energia berriztagarrien arloan, Energiaren Euskal Erakundearen aurrekontuan, ez dago energia berriztagarria ekoizteko instalazio publikorik eraikitzeke partidarik. Ez dago ekoizpen publikoa bultzatzeko aurrekonturik, sistemaren publikorasuna ezinbestekoa denean trantsizio energetiko justu bat izateko.

Klima aldaketa eragiten duten berotegi efektuko gasen emisioa murriztu eta mugikortasuna gutxitzeko ezinbestekoa da ekonomiaren birkokapena, baita ekonomia lokala bultzatzeko ere. Baina ekonomia gure lurraldean errotzeko neurriak bultzatu beharrean, SPRIren bitartez (34,5M€) nazioartekotzean tematzen dira.

Mugikortasunarekin jarraituz, gutxi batzuek erabiliko duten AHTaren eraikuntzarako 76,5 M€ko partida dago. Garraio publikoaren erabileraren izugarrizko igoera suposatzen duten deskontuak ordea ez dira mantenduko aurrekontu honetan. 2024an 15M€ bideratu ziren deskontura, 2025erako ordea 8M€ bideratuko dira, kopuru honekin ezingo da deskontua mantendu. Garraio publikoaren aldeko apusturik ez dute egin.

4.9. Zorra, gehien hazten den partida

1.025 milioi euroko aurrekontua egin da 2025ean zorra ordaintzeko, hau da, aurrekontuaren %6,5 (AHT kenduta). Horrela, zorra ordaintzeko partida da aurrekontu osoan gehien hazi dena, zehazki, 2024ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta 167 milioi euro gehiago. Horrek esan nahi du %19,5eko igoera izan dela. Zenbateko horretatik, 795 milioi zorraren amortizazioari dagozkio, eta 226 milioi, berriz, interesak ordaintzeko erabiliko dira.

Eusko Jaurlaritzaren zor biziari dagokionez, zerga-erreforma bati uko egiteak zorraren mende egotea dakarrela ikus dezakegu, eta horrek zorraren bolumen handiagoa dakar. 2024an 205 milioi euroko zorra handitzea aurreikusten da, 10.475 milioira iritsiz, hau da, BPGren %10,8. Gainera, 2025erako zorra 10.965 milioi eurora igotzea espero da, hau da, 490 milioi euro gehiago. Igoera horiek gorabehera, egia da BPGaren ratioa ehuneko berean mantenduko dela, BPG nominalaren hazkundeari esker (%4,3).

4.10. Beste gai batzuk

Soldatak eta langileak

Langile-gastuari dagokionez, azken urteotan ohikoa izan da Eusko Jaurlaritzak langile publikoen soldatak Espainiako Gobernuak eguneratzen dituen bezalaxe egitea. Hala ere, 2025erako aurrekontu-proiektua administrazio publikoan lan egiten duten 100.000 pertsonen lan-baldintzak aldeztatik negoziatu gabe aurkeztu da, askatasun sindikalerako eta negoziazio kolektiborako oinarri-zko eskubidea urratuz.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak ez du bete Askatasun Sindikalaren Lege Organikoan, Euskal Enplegu Publikoaren Legean eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoa. Lege horiek guztiek behartzen dute Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrerako deialdia egitera, lan-baldintzak negoziatzeko aurrekontu-proiektu bat onartu aurretik, baina ez da horrelakorik egin.

Gogoratu behar da sektore publikoko plantillaren baldintzek gainbehera geldiezia izan dutela azken urteetan. 2010az geroztik, erosteko ahalmenaren galera %17tik gorakoa izan da, eta 50.000 pertsona baino gehiago daude oraindik, ia langileen erdiak, behin-behinekotasun-egoeran; Osakidetza kasuan, erdia baino gehiago. Egoera horren atzean Eusko Jaurlaritzak Espainiako Estatuarekiko duen mendekotasuna dago, Madrilen erabakitzen diren baldintzak hemen txintik esan gabe aplikatzen baitira.

Azkenik, guztizko aurrekontuan pisu handirik ez duen arren, balio politiko eta sinbolikoa du Jaur-laritzako goi-kargudunen partidaren hazkundeak, 480 izan baitira (goi-kargudunen eta aholkularien artean), aurreko Jaur-laritzak baino ia %11 gehiago. Kontseilaritzak handitzeak ez du ekarri goi-kargudunak berregituratzea, aurrekontua handitzea baizik.

Lan osasuna

Gobernu-aldaketak ez du aldaketarik ekarri laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko legeria betetzean, eta oraindik ere ez da lehentasun bat. Beste behin ere, Osalanek oso aurrekontu-zuzki-dura txikia jaso du (18,2 milioi euro eskas, iazko bera).

Ez da harritzekoa, aurrekontu errakitikoa ikusita, azalpen-memorian, interes gutxiko edo bate-re interesik gabeko datuz beteta, funtsezko informazioa falta izatea, hala nola ikertzen ari diren enpresen kopurua, istripu larri, oso larri edo hilgarri gertatu behar izan gabe. ELAk Osalanera eta lan-ikuskaritzara bideratutako giza baliabideak nabarmen handitzea eskatzen du, eta gai horri ere ez zaio heldu 2025eko aurrekontuan. Ezin dugu alde batera utzi Hego Euskal Herrian orain arte 53 langile hil direla beren lanpostuan 2024an.

5. Ondorioak

De Anjou sailburuak prentsaurrekoan adierazi zuenez, aurrekontuak gobernu berriaren espiritu ausarta islatzen zuen. Hala ere, egiaztatu da hori ez dela horrela. Aurrekontuak urteko politika ga-rantzitsuenetako bat dira, pertsonen egunerokotasunari eragiten diona eta gobernuen borondate politikoa erakusten duena. Hala ere, ez da inolako aldaketarik planteatzen aurreko exekutiboarekin alderatuta.

Propagandarako makineria aurrekontuen alde

Eusko Jaur-laritzak ohituta gaitu aurrekontuen proiektua propaganda egiteko erabiltzera. Horretarako, proiektua modu partzialean eta interesatuan erakusten du, eta astebete baino gehiago behar du dokumentazio guztia argitaratzeko. Horrek aukera ematen dio, komunikabide hegemonikoen la-guntza ukaezinarekin, bere bertsio bakarra eskaintzeko. Erantzuteko eta zalantzan jartzeko inolako aukerarik gabe.

Eusko Jaur-laritzak bere mezua sartzea lortu ondoren (historiako aurrekonturik altuenak “edo” sozialetan), oso zaila da iritzia publikora ikuspegi kritiko batekin iristea.

Formen aldaketa, ez funtsean

Sarreraren adierazi dugun bezala, egia da nolabaiteko aldaketa egon dela diskurtsoan, baita forme-tan ere. Hala ere, funtsa ez da aldatu, ez behintzat egiturazko gaitan. Hau da, proiektatzen den mezua eta irudia ez datoz bat gero gauzatzen diren politikekin.

Pradalesen Gobernuak, hasieratik, aurreko gobernutik distantzia ezarri nahi izan du. Hala ere, aurrekontuen proiektuak ildo kontinuista berdina jarraitzen du. 2025erako, aurrekontu-zenbateko bera sail gehiagotan banatuko da. Horrek ez du esan nahi sail horietan baliabide gehiago behar direnik, baizik eta gizartean eztabaidan dauden zenbait gairi balio sinbolikoa ematea, hala nola

etxebizitzari edo trantsizio ekologikoari. Sail gehiago egon arren, aurrekontuak garrantzia galdu du ekonomian, hau da, aurtengoa baino txikiagoa da termino erlatiboetan.

Gero eta zor handiagoa eta baliabide propio gutxiago

EAEko zor publikoa handia ez den arren, badira kezkatzeko moduko zenbait elementu. 2024an, iaz aurrekontuan sartu zen zor guztia jaulkitzea espero da, urteak zeramatzana gertatu gabe (normalean zor kopuru handia jaulkitzen zen, baina urte amaieran askoz gutxiago jaulkitzen zen, beste baliabide propio batzuk zeudelako).

2025erako, aurrekontuan gehien hazten den partida zor publikoa da, ia %20. Eta Eusko Jaurlaritzaren iturrien arabera, aurreikusitako zor guztia jaulki nahi da.

Ilido beretik, datorren urterako zerga-berrikuspenerako proposamenak diru-bilketa gutxitzea eragingo du (neurriak aplikatuz gero), erreforma honetako neurrietako batek ere ez baitu diru-bilketa igotzea proposatzen. Aitzitik, kontrako norabidean doaz. Gainera, arau fiskalek gastua mugatzea eragingo dute datozen urteetan, are gehiago aurrekontu-politika defizitean eta zorrean oinarritzen bada.

Laburbilduz, zorrek gero eta pisu handiagoa du aurrekontu-politikan, eta baliabide propioek, berriz, gutxiago, eta horrek murrizketak eragin ditzake etorkizunean gizarte-politiketan.

Gastu gutxiago osasunean, Ituna gorabehera

Egungo Gobernuak onartu du Osakidetzak egiturazko arazoak dituela. Arazo horien jatorria, besteak beste, osasunean inbertsio publikorik ez egitea da, aurreko exekutiboek egindako politikak direla eta.

Arazo horietatik arreta desbideratzen saiatzeko, Osasunaren Euskal Ituna sortu da, modu kritikoan aztertu duguna beste dokumentu batzuetan³. Itun horren arabera, Osakidetzaren arazoak ez dira inbertsio kopuruaren arazoa, efizientzia arazoa baizik.

Gure ikuspuntutik, efizientzia hobetu behar da, baina Osakidetzaren egitura-arazo askok inbertsio handiagoa behar dute. Adibidez, baliabide gehiago Lehen Mailako Arreta hobetzeko edo Osakidetza lan egiten duten pertsonen lan-baldintzak hobetzeko, non behin-behinekotasuna %50etik gorakoa den.

2025. urterako, Osasun Sailera bideratuko den dirua 2024ko itxiera-aurreikuspena baino txikiagoa izango da, osasun-sistemaren hobekuntzak lehentasuna ez duela izaten erakusten du.

Gizarte-politika berak

Osasun publikoan, hezkuntzan eta etxebizitzan egindako gastua ez da nahikoa azken urteetan, Europako herrialdeetako batez bestekoa baino askoz txikiagoa baita.

Gizarte-prestazioei dagokienez, DSBEaren zenbatekoa oso gutxi igo da, eta etxebizitza eskuratze-ko prestazioak 300 eurotan izoztu dira, gero eta garestiagoa den etxebizitza eskuratzea are gehiago zailduz.

6. Proposamenak

Aurrekontu-politikak azken urteetako bera izaten jarraitzen du, eta, horregatik, aurrekontu-politikaren erabateko aldaketa eskatzen jarraitu behar dugu, baliabide propioak handituz eta pertsona guztiek kalitatezko zerbitzu publiko duinak jaso ahal izatea bermatuz. Horretarako, ELAk exijitzen du:

Benetako erreforma fiskala eta iruzur fiskalaren aurkako borroka

Aldundiek iragarritako erreformak zerga-bilketa murriztuko du, eta are larriagoa izango da egungo sistemaren injustizia. Foru ogasunek iragarritakoak ez du erreforma izena merezi: gaur egungo sistemak gutxi eta gaizki biltzen du, eta proposatutako neurriak are gutxiago biltzeko diseinatu dira. Ogasunek onartzen dute zerga-abantaila gehiago eman behar zaizkiela, batez ere enpresei, eta horrek larriagotu egiten du diru-bilketa lan-errenten gainean neurritz kanpo jartzeak dakarren bidegabekeria.

ELAk benetako erreforma fiskala eskatzen du, enpresen mozkinengatik, aberastasunagatik eta errenta altuengatik ordaindu beharreko zergak nabarmen handituko dituen, Covid-19aren krisi sanitario, ekonomiko eta sozialari aurre egiteko sindikatuak egindako proposamenen ildotik. Zehazki, ELAk honako neurri hauek proposatzen ditu, Foru Aldundiek erabateko eskumena dute neurri horiek gauzatzeko:

- PFEZ progresiboagoa. Zerga-tasak handitzea eta eskala aldatzea, gehieneko tasa marjinala %60ra eramanez; kapitalaren tarifa espezifikoa ezabatzea. BGAEen eta pentsio-planen tributazioa aldatzea.
- Sozietateen gaineko Zerga: mozkinen gaineko %25eko gutxieneko tasa efektiboa ezartzea, kenkariak eta pizgarriak ezabatzea.
- Ondarearen, aberastasunaren eta aberastasun handien gaineko zerga. Tarifa bikoiztu.
- Zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko zuzkidura handitzea.

Osasuneko inbertsio publikoa Europako batez bestekoarekin parekatzea

Adierazi dugun bezala, Eusko Jaurilaritzak osasunean duen aurrekontu-defizita (BPGren %5,52) oso handia da Europar Batasuneko batez bestekoarekin alderatuta (%7,6). Datorren urtean Osasuneko aurrekontua BPGren %2,1 handitu beharko litzateke, hau da, 1.893 milioi euro.

Hezkuntzako inbertsio publikoa Europako batez bestekoarekin parekatzea

Osasunean gertatzen den bezala, Hezkuntzako inbertsio publikoaren defizita izugarria da Europako batez bestekoarekin alderatuta. Zehazki, aurrekontua %21 gehiago handitu beharko litzateke, hau da, 900 milioi euroko igoera 2025eko aurrekontu-proiektuak aurkeztu dituen kopuruekiko.

Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko aurrekontua handitzea

ELAk etxebizitzari buruz egindako proposamenek atal honetan aurrekontuak BPGren %2raino hornitzeko beharra planteatzen dute, egungo %0,28aren aurrean. Horrek aurrekontua 2.000 milioi euro inguru handitzea ekarriko luke.

Bizitza duina izateko aukera ematen duten diru-sarrera bermatuak izatea

Lehenengo neurria EAEn DSBEaren zenbatekoan azken urteetan aplikatutako murrizketetan atzera egitea izan behar da. Diru-sarrera duinak eta behar dituzten pertsona guztientzat bermatuak izatea justizia sozialeko elementua da, eta, gainera, prekarietate handiagoko eta soldata baxuko egoerak saihestuko lituzke.

Trantsizio ekosozialerako funts publikoa

Eusko Jaurlaritzaren industria-politika enpresa handien interesari lotuta dago, baita klima-krisian erantzukizun handiena dutenei ere. Bidezko trantsizio ekosozialak gehiengo sozialaren interesak lehenestea eskatzen du, Petronor, Iberdrola edo lobby automobilistikoa bezalako enpresen interesen aurretik. Horregatik, ELAk trantsizio ekosozialerako funts publiko bat sortzeko beharra defendatzen du, 2.300 milioi eurokoa.

Eusko Jaurlaritzako langileen lan-baldintzak gure lurraldean adostea

Euskal administrazio publikoko langileen lan-baldintzak gure lurraldean erabaki eta adostu behar dira. Horretarako, euskal sektore publikoaren negoziazio kolektiboko mahaien emaitza errespetatzeko konpromiso politikoa eta mahai horietan akordioak lortzeko borondate politikoa egon behar dira.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA